

# 8. Euskarazko komunikabideen balio soziala:

## *Argia-ren eta Alea-ren kasu azterketak*

---

**Eneko Bidegain, Aitor Zuberogoitia, Txema Egaña.**

*HUHEZI, Mondragon Unibertsitatea*

«Euskarazko hedabide batek gizarteari ekar-  
tzen diona dirutan neur litekeena baino as-  
koz handiagoa da. Ikerketa honek erakusten  
duena da, izan Alea-n edo izan Argia-n (eta gauza  
bera euskarazko beste hedabideetan), jartzen den  
laguntza ekonomikoak kalitate handiko itzulketak  
egiten diola gizarteari».

# 1. SARRERA

Hedabideen eragina neurtzeko orduan, gehienetan audientziak, salmentak edo banaketa datuak hartzen dira kontuan. Baina hedabideek eta hedabideak aurrera eramaten dituzten enpresek helburu sozialak ere badituztela kontuan hartuta, bestelako neurgailu batzuk ere interesgarritzat jo dira. Horietako bat da elkar-teen edo erakundeen balio sozialaren gaia. Balio soziala da elkar-te edo enpresa batek bere kontabilitateko balioaz gain, bere jardunak sortzen duen bestelako balioa, nekez kuantifikatu eta are gutxiago monetizatu daitekeena. Gizarteari edo beste elkar-te, enpresa edo erakunde batzuekiko harreman eta elkarlanaren bidez, zeharka edo zuzenean egiten dion ekarpen kualitatiboa litzateke balio sozial hori.

Txosten honen helburua da hedabideen balio soziala neurtzea. Aldi honetan *Argia* eta *Alea* astekariaren balio soziala neurtzea izan da egindako lana. Ikerketa talde honek antzeko ikerketa bat egin zuen 2015ean, *Berria* eta *Goiena* hedabideekin. Oraingo honetan ere hedabide nazional bat eta eskualdeko hedabide bat aukeratu dira.

*Argia* da euskarazko astekari zaharrena, Lasarte-Orian duena erredakzioa eta Euskal Herri osoari begira lan egiten duena. Historikoki astekaria izan bada ere, azken hamarkadetan bilakaera handia izan du eta, gaur egun, astekaritik harago, webgune garatu bat eta sare sozialetako eguneroko jardun aktiboa ere baditu.

*Alea* astekaria berriagoa da, baina papera gainbehera zihoala erraten zen garaian sortu zuen Geu Gasteiz elkar-teak Araban, 2015ean, *Berria* eta *Goiena* taldeen parte-hartzearekin. Tokikom elkarteko bazkide da, euskarazko tokiko hedabide gisa, baina Araba osoa da aldizkariaren eremua.





## 2. METODOLOGIA

*Alea* eta *Argia* astekarien balio soziala neurtzeko erabilitako metodoa kualitatiboa izan da, oroz gainera. Hasteko, hedabide bakoitzeko arduradunekin bilerak egin ziren haien interes-talde (*stakeholder*) nagusiak identifikatzeko. Interes-taldeen zerrendak osatu ondoren, interes-talde bakoitzeko arduradunekin elkarrizketa bana egin zen, *Alea*-k eta *Argia*-k haiei sortzen dien balioa (kuantitatiboa zein kualitatiboa) neurtzeko. Orotara hamasei elkarrizketa egin ziren.

Elkarrizketak egin ondoren, jasotako informazioa sailkatu zen. Batetik, bi aldizkari horiek sortzen duten balio sozialaren deskribapen kualitatiboa egin zen. Ondoren, zerrendatutako balio horietako zenbait osagai kuantifikatzeko eta monetizatzekeo prozesu bat hasi zen. Kasu horretan, balioa neurtzeko aldagaiak identifikatu ziren. Gero, aldagai bakoitzeko *output*-ak bilatu ziren. Fase horren helburua da aldagaia kuantifikatzeko neurgailu bat aurkitzea. Ondoren *output* bakoitzari *proxy* bat jarri zitzaion, hala nola balio ekonomiko bat. Adibidez, aholkularitza lana egiten bada, aholkularitza lana da aldagaia, eskainitako ordu kopurua da *output*-a eta lan orduaren kostua da *proxy*-a.

Aipatu beharra dago neurketa hori ez dela zehatz-zehatza. Alde batetik, *proxy*-en kalkulua bera aldakorra izan daitekeelako (lan-ordua edo iragarki baten prezioa ez da bera enpresa edo toki guztietan). Bestetik, elkarrizketatu ditugunak baino interes-talde gehiago daude, eta interes-talde bakoitzak elkarrizketan kontatutako balioa bakarrik jaso da, baina horrek ez du erran nahi ez daitekeenik gehiago egon. Beraz, zehaztasun faltak gorabehera, ikerketa honetan neurtu den balio soziala benetakoa baino apalagoa dela aurreikus daiteke.

Kasu guztietan, balio sozialaren balio handiena gizarteari egiten dion ekarpenaren deskribapenean dago; nekez kuantifikatu eta monetizatu daitekeena.

## 3. EMAITZAK

*Alea* eta *Argia* astekarien balio soziala arloka aurkeztuko dugu hurrengo lerroetan, hedabide bakoitzari dagokiona aparte azaldu ordez. Hain zuzen ere, antzeko arloetan egiten dute ekarpena biek: euskalgintza eta euskal kultura (edo kulturagintza); lurraldetasuna; kezka sozialak; hedabide horiek egiten duten lanak hezkuntzan duen baliagarritasuna; kazetaritza eredu; eta enpresa eredu eta kudeaketa.

### 3.1. Euskalgintza eta kultura

*Alea*-k euskalgintzako hainbat taldetan parte hartzen du, euskalgintzako eragile gisa. Alde batetik, aipa liteke 2019an euskararen sustapenaren plan estrategikoan parte hartu zuela, Arabako Foru Aldundia lagunduz. Kulturgintzari buruzko hausnarketa estrategikoan ere parte hartu zuen. Bestetik, Gasteizko Euskararen etxearen laguntzailea da, proiektuaren hasieratik.

Arabako Foru Aldundiko euskara batzordean ere parte hartzen du *Alea*-ko ordezkari batzuk. Foru Aldundiaren iritziz, «eragile estrategikoa» da euskararen sustapenean. Gasteizko udaleko euskara teknikariak ere uste du estrategikoa dela Gasteizko euskalgintzarako. Udaleko lantaldeari aholkulari lanak egiten dizkio, eta lan horretan «azkartasuna, kalitatea eta gertutasuna» baloratzen dute. Bestalde, duela zenbait urte Geu Gasteiz aldizkaria desagertu zen, eta hark utzi zuen hutsunea betetzen du *Alea*-k, haren iritziz.

*Alea* Tokikom elkarteko bazkidea da, eta Tokikomeko ordezkarietako bat da Euskalgintzaren Topagunean. Gisa horretan, Topagunearen eta Tokikomen arteko lotura egiten du. Topaguneko zuzendaritza batzordeko bilerak jarraitzen ditu, eta funtzio bikoitza ikusten dio Topaguneko lehendakariak: batetik, Tokikomeko hitza ekartzen du eta bere komunikazio ikuspegia oso baliagarria zaio elkarteari; bestetik, Arabaren ikuspegia ere ekartzen dio elkarteari.

*Eragiteko Janzten* formazio zikloa egin zuten bizpahiru urtez, Geu, Lazarraga, Topagunea eta *Alea*-k. Ez ziren hitzaldi soilak, eta *Alea*-k formazio haien diseinuan ere parte hartu zuen. Helburua zen formazio soziolinguistikoa eskaintzea arabarrei. Topaguneko lehendakariaren iritziz, *Alea*-ren inpaktua ez da bakarrik komunikabide moduan, baizik eta euskalgintzako eragile moduan ere bai.

Horrez gain, hainbat ekintzatan parte hartzen dute edo sustatzen dituzte. Lazarraga elkartearekin elkarlanean, adibidez, *SolasAlean* ekimena antolatu zuten, Oihaneder etxean. Euskal Herri osotik gonbidatutako pertsona ezagunak elkarrizketatu zituzten. Elkarrizketa horiek, ondoren, sarean jarri zituzten irakurgai edo ikusgai. Argazki lehiaketak ere antolatzen dituzte, eta dozenaka lagunek parte hartzen dute urtean.

Beste eragile batek gogora ekarri nahi izan du *Patata minak* monologoa, Ane Gebara eta Aitor Vinagretekin antolatu zutena. *Alea* izan zen horren sustatzailea, eta Arabari buruzko umorea zabaldu zuten euskaraz.

Azken finean, Arabako euskaltzaleengana heltzeko ezinbesteko hedabidea da euskalgintzarentzat, Armentia Ikastolako ordezkariaren iritziz. Euskararen aldeko ekintzen oihartzuna ematen duela dio, aldiz, Foru Aldundiko ordezkariak. Gasteizko udalak euskarari begirako ekintza asko antolatzen duela dio Gasteizko udaleko teknikariak, eta horren berri publikoari eman nahi bada, *Alea*-ren bidez egiten da. 55.000 euskaldun bizi dira Gasteizen eta guztira 120.000k ulertzen dute, eta «horientzat erreferentzia» da *Alea*, Lazarraga kultur-elkarteko kidearen ustez.

Horri loturik, aipamen berezia egin behar zaio Euskararen Agendari, eragile guztiek azpimarratu baitute. *Alea*-n euskarazko ekitaldien agenda zabala zabaltzen dute astero, eta denek azpimarratu dute horren etekina, bai ekitaldien antolatzaile gisa bai ekitaldien jarraitzaile gisa.

Bestalde, Ziburuko liburu azokaren antolatzaileetako bat da *Argia*. Ekimena Ziburuko Baltsan elkarteara izan zen, baina hasieratik zuten asmoa Zibururako bakarrik ez, baizik eta Euskal Herri osorako, alegia, azoka nazional bat antolatzeko. Lehen Euskaraldiaren ondoren hasi ziren pentsatzen: ikusi zuten zenbat euskaldun baden baina ohartu ziren zein gutxik hitz egiten duten. Horregatik pentsatu zuten euskara hutsezko ekitaldi bat sortzea. Bakarrik ezin, eta *Argia*-rekin antolatzea pentsatu zuten, lehen edizioaren urtean *Argia*-k 100 urte ospatzen zituela baliatuz.

Baltsanekoak eskertuta daude *Argia*-ren inplikazioarekin. «Gu elkarte ñimiño bat gara, baina *Argia*-koek ez dute ikusten kantitatea, baizik eta kalitatea. Gero eta inplikazio handiagoa du *Argia*-k». Ziburuko azoka «erreferentziazko hitzordua bihurtzen ari da, *Argia*-ren lanari esker». Hain zuzen ere, Euskal Herri osoko jendea eta euskal kultur munduko pertsona ezagunak joaten dira azokara. Hori lortzeko, ezinbestekoak izan dira *Argia*-ren sare handia eta kontaktuak. Baita *Argia*-ren itzalaren bidez lortu duten hedabideetako oihartzuna ere.

*Argia*-ren ekarpen konkretua ideiarekin garapenetik hasi eta egunean bertako lan xeheetaraino doa. «Laguntza ekarri du ideien aldetik, programazioa elkarrekin osatu baitugu». Aurkezpenak antolatzeko batzorde bat osatzen dute elkarrekin, *Argia*-k eta Baltsanek. Edukiaz eta komunikazioaz gain, ekarpen ekonomikoa eta praktikoa ere egin du. Lehen urtean *Argia*-k hartu zituen gastuak bere gain. Orain, azoka autonomoa da ekonomikoki. Bestalde, azoka egun osoan lanean aritzen dira *Argia*-ko langileak: adibidez, gonbidatuentzat antolatutako herri-bazkarian.

Ziburuko azoka ez da azoka egunarekin bukatzen. Azoka horren antolatzaileek eta antzeko beste zenbait ekimenen antolatzaileek Doinuele izeneko elkarte sortu dute. *Argia*, Ziburuko azokaren antolatzaile gisa, Doinueleko bileretara joaten da, Baltsanekoekin batera. Horrez gain, bilerak *Argia*-ren egoitzan egiten dituzte.

### 3.2. Lurraldetasuna

Ziburuko Baltsan elkarteak *Argia*-rekin lan egitearen arrazoia izan zen «independentea, euskara hutsezkoa, ezkertiarra eta nazionala» dela. Elkarrizketari erantzundion Baltsan elkarteko kidea *Argia*-ko kolaboratzaile izan zen 1978an, baita Ipar Euskal Herriko beste batzuk ere. «*Argia*-k beti izan du nazionala izatearen helburua. Ipar Euskal Herriko berriek beti izan dute lekua. Beti bilatu dute berriemailea Ipar Euskal Herrian». Eta herrian «galdu» den nazio ikuspegi hori berreskuratzeko helburuarekin ere antolatu dute azoka Baltsan elkartekoek. «Inportantea da

azoka hori egitea mugaz bi aldeetako euskaldunak biltzeko». Izaera nazional hori *Argia*-k eman dio azokari.

Euskal Herriko lurraldetasunari *Argia*-k egiten dion ekarpenaren ondoan jar liteke *Alea*-k egiten duena. *Alea*-k Arabaren ikusgarritasuna handitu du bai Gasteizen, bai Euskal Herrian, hainbat interes-talderen iritziz. Alegia, Gasteizen bertan bizi dira Arabako biztanleen hiru laurdenak. Ondorioz, Gasteizkoak ez diren herriak ahanzteko joera izaten da. Baina Gasteiztik kanpoko Arabak ere tokia dauka *Alea*-n. Hori azpimarratu du, besteak beste, Arabako Foru Aldundiko ordezkariak: «Beste hedabideek ez dute Arabako hainbeste berri ematen».

Zentzu horretan, «hurbileko eragilea» izatea eskertzen dute. «Komunikazio arloan, badira hainbat komunikabide mundu zabaleko berriak ematen dituztenak, eta askotan galtzen dugu tokian tokikoa. *Alea*-k eskaintzen du», dio Foru Aldundikoak.

Baina Euskal Herrian Arabaren ikusgarritasuna ere handitzen da *Alea*-ri esker, kolaboratzaile batek dioenez. «Araba EAEn badago ere, juridikoki euskarak duen leku hoberenean, Araba ez da ezaguna euskaldun askorentzat», baina *Alea*-ri esker aipamen gehiago lortzen du. Kasu honetan, ez papereko bertsioaren bidez, baizik eta webgunean eta sare sozialetan duen presentziari esker. Euskaltzaleon Topaguneko lehendakariak ere antzekoa dio: «Arabar ikuspegia zaintzen du eta sarean zabaltzen du, Arabatik hara. Arabaz ari den aldizkari bakarra da».

Tokiko hedabideen artean ere eredugarritzat jotzen dute *Alea*, Tokikomeko lehendakariaren arabera. Arabako ikuspegia eta ordezkaritza ematen du elkartean. Tokikomeko administrazio kontseiluan dago. Hiriburu bateko hedabide baten moldean ematen du, zelan funtzionatzen duen erakusten du (hain zuzen ere, Tokikomek hirietan ez du toki handirik, Gasteiz kenduta).

*Alea*-k kazetari profesionalak baditu, baina baita zutabegile eta laguntzaile ugari ere. Profil askotako kolaboratzaileak dira, horietako batek dioenez. Are gehiago, «Arabaren euskaraz idazten duten askorentzat idazteko aukera» eskaintzen du. *Alea* ez balitz egongo, aukera hori ez lukete izango, hedabide nazionaletan espazio gutxiago legokeelako denentzat. Dena den, azpimarratu du kolaboratzaile «hoberenek» ez dutela bakarrik hedabide nazionaletan idazten; haiek ere parte hartzen dute *Alea*-n (hau da, «hoberenek» ere parte hartzen dute). Hots, Arabaren euskaraz idatz dezaketenentzako aukera garrantzitsua da.

### 3.3. Kezka soziala

*Alea*-k Arabako eragile eta elkarre askoren berri ematen du. Ezinezkoa da denak zerrendatzea, baina batzuentzat ezinbesteko euskarria da beren berri zabaldu ahal izateko. Adibidez, Ikusgune elkartearentzat. Ikusgune Gasteizko LGBTBI+fobiaren aurkako Behatokia da, eta egiten duen lanari oihartzuna emateko ezinbesteko

eragiletzat dauka *Alea*. Halaber, LGTBI+ kolektiboaren gaiak eskubideen ikuspegi eta sentsibilitatetik ongi gizarteratzen dituela uste du.

Zehazki, Ikusgunek egiten duen guztia *Alea*-n ateratzen da (urteko txostena, prentsa ohar guztiak, elkarrizketak...), eta *Alea*-k egiten du elkarteari buruzko informazioaren «trataera hobereana»: Horrek ere pisu bat baduela diote kideek: «behar bezala komunikatzen du; ez du morboa elikatzen». Gaia ikuspegi «oso politotik» lantzen dute Ikusgunen. Ez dira ildo kapitalistan kokatzen, eta euskaraz egiten dute. «Hori kokapen politikoa» dela adierazi dute. Eta horretan *Alea*-k eta Ikusgunek elkar ulertzen dute.

Ondorioz, *Alea*-k ikusgarritasun bat ematen dio elkarteari. «*Alea* ez balitz existituko, lan handia egin beharko genuke geure burua ezagutarazteko», diote. Hain zuzen ere, *Alea* tokiko hedabidea izateak ematen dio aukera Ikusguneri egiten dutena hedabideetan agertzeko. Bestela, *Berría* egunkaria izango litzateke tokia eskainiko liokeen bakarra, baina hedabide nazionala izanik, ez luke nahikoa espaziorik Ikusgunek egiten duen guztiari oihartzuna emateko, *Alea*-k egiten duen gisan.

Orokorrean, Gasteizko bizitza sozialaren eta kulturalaren berri ematen duen hedabidea dela dio Gasteizko udaleko euskara teknikariak.

*Argia*-ren gizarte ikuspegiaren eta kezken aldetik, naturari eskaintzen zaion tratu berezia aipa liteke. Interes-taldearen artean dago Biolur, adibidez. Baina baita ere baratze gintzaren inguruko lana, sendabelarrei lotutakoa, eta abar. Jakoba Errekondok 29 urte daramatza *Argia*-rekin kolaboratzen. Astero idazten du artikulatu bat landareen munduari buruz, «ez teknikarientzat botanikaren ikuspuntutik, baizik eta irakurle arruntentzat». Horri «etno-botanikaren ikuspegia» erraten dio; alegia, «landareak eta gure kultura, gure bizimodua, hizkuntza...» kontuan hartzen eta lotzen dituen ikuspegi bat da. Gisa horretan, *Argia*-k bide ematen dio milaka laguni esplikatzekeko landareen edo baratze gintzaren ikuspegi kulturala, Euskal Herritik ikusia.

Eta badu arrakasta. 2013an *Bizi baratza* liburua argitaratu zuten, ildo horretako edukiekin. Apirilean argitaratu zuten, eta urte bereko Durangoko Azokarako hiru argitaraldi izan zituen. Guztira 10.000 ale saldu dituzte. Arrakasta hura ikusiz, aurkezpenak eta hitzaldiak egiten hasi ziren. Urte betean 180 aurkezpen egin zituen Jakoba Errekondok (azpimarratu behar da Euskadi Irratian ere kolaboratzen duela, eta entzule asko dituela). «Jabetu ginen hor bazegoela aurretik oso ondo usaindu ez genuen gauza bat: premia bat, baratzearen ikuspuntua (hiritar jendea berriz ere lurrera begira jarri dela eta baratzearekin berradiskidetzeko gogoia duela) eta hizkuntza (esaerak, bertsoak, poemak, landareen izenak, hiztegia...) lotzeko», azaldu du Errekondok. «Mundu oso zabal bat bazegoen pixka bat utzita. Mundu kultutik begiratuta, erabat utzita. Kultura ez da pianoa jotzea edo aurrekua dantzatzea». Kultura aniztasun hori da proiektu horrek agerian utzi duena.

Interes horretatik tiraka, beste hainbat proiektu ere jarri dituzte martxan. Batetik, *Altzaporr* liburua atera zuten, baratzea komikilarien ikuspegitik lantzen duena. Bigarrenik gai horri buruzko webgunea sortu dute, eta hor dago orain arte egin duten guztia, hiztegi bat, asteroko lanak... Hirugarrenik, buletin bat bidaltzen dute astelehenero (izena ematen dutenek jasotzen dute), azalduz aste horretako lanak zein diren. Buletin horretan, jendeari aukera eskaintzen zaio Jakoba Errekondori galderak zuzenean egiteko (ia egunero heltzen dira), eta Errekondok zuzenean erantzuten die galderari, bai galdera egin duenari, bai webgunean, bai Whatsappeko kanalean. Laugarrenik, Euskal Herriko agenda bat zabaltzen dute, lurrari lotutako ekitaldiekin (ikastaroak, azokak... aste betean 100 ekitaldi baino gehiago izan ohi dira).

Liburu gehiago ere argitaratu zituzten, gerora: *Etxeko landareak*, Garbiñe Larrearen sendabelarren liburua, *Ardiek egin naute artzain*, *Ilargia eta landareak* agenda (urteko informazio astronomikoaz gain, astero zer egin behar den azaltzen duena)...

Baina, gaur egun, astekarian bertan ere toki handia eskaintzen diote gaiari; astero lau orri: orain arte aipatutakoaz gain, Garazi Zabaleta kazetariak sektore horretako proiektu bat (gazte bat, proiektu berri bat, talde bat...) aurkezten du astero. Horrekin batera, webgunea erabat berritu dute. Lagun eta kolaboratzaile andana bildu dute proiektu horren inguruan.

Laburbilduz, *Argia*-rekin osatutako proiektu horretan eskaintzen da inguru-arena eta nekazaritzari buruz euskaraz dagoen informazio gune inportanteena, Errekondoren ustez.

### 3.4. Kazetaritza eredia

Elkarrizketatutako interes-taldeek azpimarratu dute *Argia*-k kalitateko kazetaritza egiten duela. Harpidedun baten hitzetan, beren etxera sartzen den hedabide bat da, «oso garrantzitsua» dena. «Jorratzen dituen gaiak oso ezberdinak dira, beste hedabideetan aurkitzen ez direnak. Asko dira inguru txikiari enfokatu-tako lanak. Oso interesgarria da», esplikatu du. Ekologia, feminismoa, politika eta kultura arloak jarri ditu zerrendan, eta interesgarria iruditzen zaio «fokoa non jartzen duten». Beste irakurle batek nabarmendu du *Argia*-k sortzen diren edukiak «bertako ikuspuntuarekin» sortzen direla. «Oso garrantzitsua da niri egiten didan ekarpena, eta hori da artikuluak landuak direla, denbora ematen zaiela sakontzeko».

*Argia*-k euskarazko irrati libreen Arrosa sarean ere parte hartzen du. Horrekin lotuta dago *Argia*-ren filosofiaren beste adar bat: sortzen dituzten edukiak libreak izatea eta partekatzea. Arrosa sareak hainbat podcast biltzen ditu, eta *Argia*-k 100 bat saio sortzen ditu urtean. Arrosa sarearen webgunean edo plataforma



digitaletan entzun daitezke saio horiek, baina horrez gain, Arrosa sareko irrati batzuetan ere emititzen dituzte. Beraz, *Argia*-k irrati horientzako eduki zati bat sortzen duela ere erran liteke.

Bestalde, Arrosa sareak ekoizten duen *Zebraidea* saiorako informazio iturri handitzat daukate *Argia*, bere edukiak irekian jartzen baititu. «Eta hori balio bat da, erabilgarri baitira». Hedabide askotan, kuota bat ordaindu behar izaten diete agentziei, berriak jaso eta zabaldu ahal izateko. *Argia*-k zerbitzu hori doan eskaintzen du.

Horrez gain, *Argia*-k irrati txikiei oihartzuna ematen die, eta hori ere onuragarria da irrati horientzat, ikusgarritasuna lortzera begira.

*Alea*-k ere bere gisako ekarpena egiten die beste hedabideei. Eredu gisa ikusi dute zenbait eragilek. Tokikomeko lehendakariak dio hiriko ikuspegia ekartzen diela beste hedabideei. Hain zuzen ere, euskarazko gainerako tokiko hedabideak herri txiki edo bailaretakoak dira, eta ez hirikoak. Hiriko tokiko kazetaritza nola egin daiteken azaltzen die. Eta horretan ere direla uste du. Topaguneko lehendakariak gaineratu du *Alea*-k daukan idazteko eta lan egiteko modua «irradiatzen» dela Tokikomeko beste kideengana.

Lazarraga elkarteko ordezkariak «oso gertuko kazetaritza» egiten dutela uste du. «Sen handia» ikusten die kazetariei: «albiste asko *Alea*-n atera dira *Correo*-n edo *Noticias*-en baino lehenago edo hobeto». Euskarazko kazetaritzari egiten zaion ekarpen handiaz mintzo da. «Euskaraz eta Araban» egiten den kazetaritza da: «bertan dagoen tempusagatik, gaiengatik, gaiak lantzeko moduagatik (erreportajeak...), gaur egun ez dena hainbeste egiten». Kazetaritza mota horren «kalitatea» txalotu du.

Halaber, tokiko hedabide txikien bateratze prozesuetan oso inplikaturia izan dela eta dela dio Topaguneko lehendakariak. *Alea* bera hainbaten arteko bateratzetik eratu zen, eta orain gainerako lekuetan egiten ari diren bateratze prozesuetako «eragile aktiboa» da.

Tokiko beste hedabideei begira edo gainerako eragileei begira, *Alea*-k berrikuntzen arloan egiten duen ekarpena azpimarratu dute hainbat eragilek. Batzuek aipatu dute Telegram kanala: *Alea*-ko edukietara kanal horretatik joaten direnak badaude; beste batzuek eguneroko jakinarazpenei balio handia ikusten diete, berriak berehala zabaltzen dituztelako.

Halaber Internet eta ikus-entzunezkoetan duten eskaintza handia azpimarratu du Gasteizko udaleko euskara teknikariak. Lazarraga kultur elkarteko ordezkariak ere balio handikotzat jo du bideoen arloan egiten dutena: «oso argi ageri da zer nahi duten». Arabako Foru Aldundiak dio IKT-etan (Informazio eta Komunikazio Teknologia) ekarpenak egiten dituztela eta etorkizuneko ikuspegia dutela. *Alea*-koek ikuspegi hori zabaltzen dute parte hartzen duten foroetan. Eta honekin nolabait lotuta, Foru Aldundiko ordezkariak gehitu du *Alea* «kudeaketa aurreratuan

ere aitzindaria» dela; horrekin erran nahi du teknologia berriak eta digitalizazioa egunerokotasunean txertatzen badakiela *Alea*-k, eta horrekin «besteak inspiratzen» dituela. Adibidez, udal aldizkari asko dago Araban, eta *Alea*-n inspiratzen dira maketaziorako eta beste zenbait arlotarako.

### 3.5. Ekarpena hezkuntzari

Hezkuntzara bideratutako lana ere eskaintzen du *Argia*-k. Aranzadi Zientzia Elkarteko kide den biologo bat hezkuntza arloan ari da orain lanean, ingurumen arloko aholkulari bezala. Lan horretan, *Argia*-rekin duen harremana oso emankorra da. «Hasi nintzen idazten *Argia*-n ingurumenaren eta gizarte historiaren arloko erreportajeren bat edo beste. Gerora, *Argia*-koekin argitaratu ditugu hezkuntzari buruzko material didaktikoak, jolasak, puzzleak, Xapoketan karta jokoa, Euskal Herriko animaliei buruzko puzzlea...».

Produktzio horri esker eta argitaratzen dituen erreportajeetan, *Argia*-k «ezagutza zabaltzen du gai konkretu batzuen inguruan, agian aurretik ezagutzen ez ziren gauzak publikatzen dituelako». Biologo honek dio publikatu izan direla hezkuntza arloan hainbat artikulua hiriguneetako ingurumen hezkuntzari buruz edota ikerketa bat bertako espezieen ezagutzari buruz... «Gai berritzaileak» direla dio.

Eta berak erreportaje asko erabili izan ditu hezkuntza arloan gai baten sarrera egiteko. Testua irakurri, ulermena landu, edukiak landu eta hausnarketa bultzatu ditu klasean, *Argia*-ren testuetatik abiatuta. Bideoak ere egiten dituzte, dokumentalen bat... Horiek ere erabili ditu. «Bere garaian eskatu zidaten ingurumen hezkuntzari buruzko bideo bat grabatzeko, eta badakit hainbat ikastarotan erabili izan dutela, material didaktiko bezala». Irakasleentzako materiala sortzen du *Argia*-k, azken finean.

Artikuluez eta bideoez gain, «*Argia*-k sortzen duen material asko pentsatuta daude gero etxeetan eta hezkuntza arloan erabiltzeko. Material zehatzak dira, baina malguak». Material horren «ekarpen handia» azpimarratu du: «enfokea garbia dute, euskaraz dira, bertako ereduak eta espezieak dituzte ardatz; hori oso gutxik egiten dute, esaten baitute ez dela errentagarria». Biologo honek dio askotan kanpoko materiala ekartzen dela eta hemen saldu. «Baina *Argia*-k egiten duena hemen sortzen du, eta hori ekarpen handia da».

*Alea*-ri dagokionez, zenbait ekimen egin dituzte Gasteizko Armentia ikastolarekin elkarlanean: horietako bat da Kantari programa, Gabonetan antolatzen dutena. Hurrek euskarazko kantu ezagunen *play-back* dantzatua egiteko proposamena da. Ehunka hurrek ematen dute izena, baina ez dago denentzako tokirik, beraz zozketa bidez hautatzen dira parte-hartzaileak. Gisa horretan, euskararen erabilerara bultzatzen du *Alea*-k Armentia ikastolarekin, ikasleen motibazioa sustatzen du eta euskal kantuak ezagutarazten.

### 3.6. Enpresa kudeaketa

*Alea* Oñatiko Gertu inprimategian inprimatzen dute astero. Beste bezero askok ez bezala, *Alea*-rekin lan egiteak ez die lan gehigarririk suposatzen. Hori da azpimarratu dutena inprimategian. Hain zuzen ere, lan arduratsua eta epeen errespetua ezinbestekoak dira lana eroso egiteko, eta hori ziurtatzen diete *Alea*-koek. Beste bezero askoren gisan haien atzetik ibili beharko balute (dokumentuak behar bezala ez bidaltzeagatik, epeak ez errespetatzeagatik, eta abar), lan gehiago eskatuko lieke. Nahiz eta *Alea*-k fakturak ordaindu, lan gehigarri hori ez izateak fakturatik aparte legokeen gastu bat aurreztea eragiten dio Gerturi.

Bestalde, *Alea*-ren bitartez Gertu enpresak oihartzuna lortzen du. Kasu honetan ez aldizkarian ematen den informazioaren bidez, baizik eta ahoz ahokoaren bidez. Komertzial lana izango litzatekeena da egiten duena, eta horrek ere badu nolabaiteko balioa, inprimategikoek aitortu dutenez.

*Argia*, bestalde, enpresa-egitura aldetik, lan-sozietate bat da. Alegia, langileek enpresaren kapital sozialean parte hartzen dute. Halako enpresen koordinazioa egiten duena da ASLE taldea. Euskal Autonomia Erkidegoko 230 enpresa batzen ditu ASLEk, eta horietako bat da *Argia*, azken 25 urteetan. ASLEko kideak adierazi du *Argia*-k parte-hartze handia duela eta ASLErentzat enpresa «erreferentziala» dela. «*Argia* da egiazki lan-sozietatea den eredu bat. Egiazki sinesten dute beren egituran, ez bakarrik juridikoki, baizik eta ariman daukate izaera hori: balioak, enpresa proiektua ulertzeko modua, langileak zaintzeko modua, lurraldean duten inplikazioa eta ikuspegia. Oso argi dute proiektu orotan pertsona dagoela erdigunean, baina gizartea eta lurraldearekiko konpromisoa galdu gabe. Proiektu konpetitiboa izan behar da ere, baina beti lehentasuna ematen diote elkartasunari eta parte-hartzeari», argitu du ASLEko ordezkariak.

ASLErentzat oso garrantzitsua da ASLEko enpresek ASLEren bizian parte hartzea, ez bakarrik zerbitzu gisa, baina harago. ASLEko kongresuan, hainbat enpresak parte hartu ohi du, baina *Argiak* ekarpen kualitatiboa egiten duela dio ASLEko kideak; hain zuzen ere, «enpresa proiektua ulertzeko moduan ekarpena egiten du, eta hori beste enpresei ematen die. Beste enpresak laguntzen ditu hazten ikuspegi honetan». Bide horretan, ASLE asko laguntzen dute haren proiektua ikusgarri egiteko beste enpresen begietan. «*Argia* bezalako enpresarik gabe, oso zaila litzateke ikusaraztea zer den proiektu konpartitu bat. Enpresa bat etortzen denean galdez, *Argia*-ren egoitza bisitatzera joaten dira, erakusteko kontatzen dutena egia dela», dio ASLEko arduradunak.

Horrez gain, *Argia* Olatukoop elkarteko bazkidea da. *Argia*-k galdetu zuen ea elkarteko bazkide izan zitekeen. «Guk ekonomia soziala ulertzen genuen modukoak zirela erantzun genien», dio Olatukoopeko arduradunak. Beraz, egitura horretan

ere aktiboki hartzen du parte *Argia*-k. Azken urteetan ez dago zuzendaritzan. Baina lehenago egon zen. Une honetan «ekarpen handia» egiten dute komunikazioan. Elkarreak komunikazio estrategia bat muntatzen duenean, *Argia*-koak prest egoten dira hor parte hartzeko. Horrez gain, azken urteetan Biolur Gipuzkoa nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren aldeko elkarrearen komunikazioan parte hartzen ari da *Argia*. Elkarre hau ere Olatukoopen dago.

Baina elkarre horietako inplikazio formalaz gain, Olatukooppek baloratzen duena da *Argia*-ren edukietan ekonomia sozialaren aldeko lan asko zabaltzea: «*Argia*-k bere ildo editorialean zein eduki edo gai landu finkatzean, beti presente izan du Olatukoopetik izan dugun gaien agenda. Burujabetza materialei lotua dago: elikadura burujabetza, etxebizitza kooperatiboa, teknologia burujabetza, kooperatibismoa... *Argia*-k beti bisibilitate handia eman die gai horiei. Burujabetzen inguruko diskurtso eta gaietan espazio nabarmenak eman izan dizkigu, *Gakoa* urtekarian, erreportajeetan...». Olatukoopentzat garrantzitsuak diren gaien jarraipena egiten dute, eta «ez albiste isolatu moduan, baizik eta hainbat artikulutan, erreportajeetan eta elkarrizketetan». Olatukoopen iritziz, *Argia*-k ikusgarritasun oso handia eman dio ekonomia sozial eraldatzaileari.

Une batean, bi urtez, astero argitaratzen zuten artikulutxo bat ekonomia sozialeko proiekturen bati buruz. Beste batean, hilabetean behin artikulua bihurtzen zuten Olatukoopeko kooperatibaren batek egiten zuen praktika aipagarriren bat. Beñat Irasuegi Olatukoopeko arduradunak hiru hilabetean behin idazten du artikulua bat *Argia*-n, Olatukoopen inguruko agendari buruz. Une honetan, hilabetero bizpahiru artikulua edo erreportaje lotuak izaten dira Olatukoopen gaiekin.

Edukiez harago, *Argia*-ren eguneroko hautu eta portaerak txalotu ditu Olatukoopeko kideak, edukietan zabaltzen duten mezuarekin koherente direnak. Adibidez, teknologia libreen aldeko inplikazioa oso handia dela nabarmendu du. «Sare sozial federatiboen eta libreen inguruan lan handia egiten du. Batera doaz haien bidea eta gurea, nahiz eta bakoitzak bere esparrutik egiten duen».

### 3.7. Balio kuantitatiboak

Aurreko lerroetan nolabait kualitatiboki deskribatutako ekarpen hori zenbakietara ekartzeko ahalegina egin da, egin zitekeenean. Gainerako erakunde edo elkarreetan eskainitako denbora eta antolatutako edo lagundutako hainbat ekimen kontuan hartuta egin da kalkulua. Lan orduak, iragarkien prezioak, bideoak sortzeko beste enpresetan fakturatzen dutena eta beste hainbat balio erabili dira kalkulu hori egiteko. Balio hori da balio sozial espezifikoa.

*Alea*-k eta *Argia*-k, bien artean, 672.280 euro jaso zituzten 2022an, diru-laguntza publikoetatik.



Baina soldatetan ordaindutakoari dagokion balio sozial zatia, gizarte segurantzari ordaindutakoa, langileen errentari dagokion atxikipena, BEZA eta hornitzaileei ordaindutakoari dagokion balioa batuta, eta diru-laguntzak kenduta, 695.889 euro gehiago itzuli zizkion gizarteari, era zuzenean. Hau da, diru laguntzetan jasotakoa baino 2,02 aldiz gehiago itzuli dio gizarteari. Itzultze sozioekonomikoaz harago, aktibitate ekonomikoak berak eragindako balio sozioekonomikoa 1.255.136 eurokoa da, erran nahi baita jasotako laguntza baino 2,87 aldiz handiagoa.

Balio sozial espezifikaren kalkulua erantsiz gero, itzultitakoa askoz handiagoa da. Nahiz eta datu hori tentuz erabili behar den, egindako kalkularen arabera 3.931.359 euroko balioa lukeen ekarpena egin dute *Alea*-k eta *Argia*-k. Horren arabera, gizarteari itzultzen diotena jasotzen dutena baino 6,85 aldiz handiagoa litzateke.

2022

	ITZULTZE SOZIOEKONOMIKOA	BALIO SOZIOEKONOMIKOA	BALIO SOZIAL ESPEZIFIKOA	BALIO SOZIAL OROKORRA
ERAGIN SOZIALEKO BALIO EKONOMIKOA	877.267 €	1.145.887 €		1.145.887 €
ZEHARKAKO ERAGINEKO BALIO EKONOMIKOA (HORNITZAILEAK)	490.902 €	789.528 €		789.528 €
BALIO SOZIAL ESPEZIFIKOA	0 €		2.676.223 €	2.676.223 €
INBERTSIOAK	0 €	0 €	0 €	0 €
	1.358.168 €	1.927.236 €	2.676.223 €	4.603.639 €
DIRU-LAGUNTZAK	672.280 €	672.280 €	672.280 €	672.280 €
	695.889 €	1.255.136 €	2.003.944 €	3.931.359 €
<b>DIRU-LAGUNTZAK KONTUAN HARTUTA</b>	<b>2,02</b>	<b>2,87</b>	<b>3,98</b>	<b>6,85</b>

## 4. ONDORIOAK

Txosten honetan emaitza kualitatiboetara eman nahi izan zaie lehentasuna. Balio sozialaz hitz egiterakoan, balio horren izaera deskribatzea da garrantzitsua. Euskarazko hedabide batek gizarteari ekartzen diona dirutan neur litekeena baino askoz handiagoa da. Ikerketa honek erakusten duena da izan *Alea*-n edo izan *Argia*-n (eta gauza bera euskarazko beste hedabideetan) jartzen den laguntza ekonomikoak kalitate handiko itzulketa egiten diola gizarteari.

Batetik, badago lurralde ikuspegi bat. *Alea* Arabako astekaria da eta *Argia* Euskal Herrikoa, baina biek ematen diete ikusgarritasuna beste gisan itzalean egoten direnei. *Alea* existitzeari esker, Arabak badu bestela ez lukeen espazio bat Euskal Herrian. Nahiz eta *Alea*-ren irakurleak Araban dauden, Arabako gaiak urrunago ere lortzen dute oihartzuna, gaur egungo komunikazio baliabideei esker. *Alea* ez balitz existituko, Arabako gai horiek inork ez lituzke landuko. *Argia*-ri dagokionez, egoitza Gipuzkoan izan arren, Euskal Herri osoko berriak lantzeari ematen diete garrantzia.

Bi astekariak eskaintzen dituzten edukiei dagokionez, hainbat eragilerentzako funtsezko hedabideak dira, beren berri emateko edo gizarteko hainbat arazo lantzeko. Izan liteke LGTBI komunitateari buruz, euskara arloko elkarten lana, ingurumenari buruzko gaiak... Beste giroetan edo hedabideetan nahiko itzalpean dauden gaiak argitaratu eskertzen diete bi aldizkari horiei.

Aldizkariak gain, beste hainbat ekintza sustatzen dituzte edo ekintzetan parte hartzen dute, beste erakunde batzuekin. Horiek guztiak herriaren aktibazioa edota kohesioa eragiten dute.

Edukiaz harago, gizartean inplikatuak diren bi erakunde dira. Euskararen arloan, *Alea*-k aktiboki parte hartzen du Arabako eta Arabatik kanpoko hainbat erakunde edo taldetan (Euskaltzaleon Topagunean, adibidez). *Argia*-k ere beste erakunde batzuekin lan egiten du euskal kultura sustatzeko (Ziburuko liburu azokan, bereziki). Baina euskararen arlotik haragoko erakundeetan ere parte hartzen dute eta ekarpena egiten dute, aholkulari moduan.

Gizartearekiko eta euskararekiko kezka handia duten bi enpresa dira *Argia* eta *Alea* argitaratzen dituztenak. Kezka hori islatzen da beren ohiko ekoizpenean eta hortik haragoko lan, harreman eta inplikazioetan. Neurketa ekonomiko batean eta merkatu terminoetan kabitzen ez den balioa da hori, eta gizarteari onura egiten dio.